



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Eskurik esku dabil-tzan pazienteak

Gaur paziente biren kasuak azalduko dizki-
zuet, aurreko hilabeteetan kontatu ditudan
gaiekin lotuta; izan ere, hemengo artikulua-k
monografikoak badira ere, bizitza errealean
gauzak ez dira hain argiak izaten. Nahi due-
nak, aurreko artikuluekin loturak aurkituz
denbora pasa dezake!

Marixe, 1949an jaio-tako etxekoandrea, beste fisioterapia zentroetan ibilia zen gurera etorri aurretik. Harrezkero (ba-dira hamabi urte) askotan etorri da guregana, besoko arti-kulazioetako eta muskulu-etako arazo txikiengatik; pozik gainera, fisioterapia saio gutxi-rekin hiruzpalau urtetarako ondo gelditzen zelako. Horrela etorri zen duela hilabete batzuk ere: “beti bezalako” sorbalda-besoko mina zuenez, segituan kentzeko esperantzarekin. Baina esploratu nuenean zerbait desberdina zegoen; ezer larririk ez, bai oster a gure “betiko” protokolo horren orde-z lepoa tratatzea eskatzen zuena. Baina Marixek ez zuen lepoa inondik inora ukitzerik nahi, beste fisioterapeuta batek behin lepoa tratatu zione-an, gero minez izan zelako. Besoa bakarrik tratatu nion beraz, baina... saio gutxi batzuen buruan, mina ez zen hobetu. Pazientea protesta-ka etorri zit-zaidan, ez omen nintzelako “beti bezala” tra-tatzen ari (“lehen halako eta halako maniobrak egi-ten zenizkidaten” deskriba-tzen zidan, zehatz-mehatz). Eta horrela zen, bai: batetik, osagileak ez gara garbigai-luak -txanpona sartu, eta beti programa bera egiten dugunak-; pazientea nola datorren, tratamendua ho-rrela egokitzen dugu. Eta bestetik, ezinbestean trata-tu behar dena -kasu hone-tan, lepoa- ez tratatzeko baldintzak ez du inolaz ere laguntzen. Gainera, teknika batekin arazoa egon dene-an (erantzun mingarria), beste tratamendu asko pro-ba daitezke. Azalpenok alfe-rrikakoak izan ziren: han

joan zen Marixe bere ustezko diagnostikoarekin, behar omen zuen tratamendua egingo zion beste fisioterapeuta baten bila. Ez da erraz sendatuko, horregatik!

Peru, 1969an jaio-tako kirolari profesionala. Dena proba-tzea gustatzen zaio, eta ahalmena duenez, urtean zehar di-rutza gastatzen du terapeuta desberdinekin. Gurera ere sa-rri etortzen da, urtean bizpahiru bider; duela gutxi adibidez, “masajeak hartzen” egon arren, pasatzen ez zi-tzaion ziatika itxurako batekin. Ikusketan, ez nion gauza konplikaturik ikusi: muskulu batzuk luzatu beharra, beste batzuk sendotu, artikulazio batzuk malgutu... Saio batzue-tan hobetuko zen kasu tipikoa, batez ere etxean aholku ba-tzuk jarraituz gero. Baina Peru burugogorra da: berak beti bezala entrenatzen jarraitu nahi du (gaizki eginiko gauzak barne), eta, halere, sendatu; saio bakar-rean gainera. Bistan denez, mina ez zitzaion kendu eta handik astebet-era idatzi zidan, ea “ziatikan espezializatutako beste fisioterapeutaren bat” ezagutzen ote nuen (!!!). Nire onetik ez ateratzeko aha-leginetan, azaldu nion berak zuena edozein fisioterapeutak

tratatu-ko ziola ongi; baina emaitzak lortzeko hark proposatutako tratamen-dua jarraitu behar zuela, hasi eta buka, eta bere aholkuei ere jaramon egin. Ez dut esperantza handirik Perurekin: mirari baten bi-la jarraituko du; entzun nahi duena agintzen dioten iruzurgileen esku eroriko da; eta azkenean kirola utzi beharko du.

Hor dituzue Peru eta Ma-rixe, eskurik esku dabil-tzan pazienteen prototi-poak. Bisitatu duten terapeuta bakoitzeko, his-toria klinikoan ikurrin hori bat ezarri behar diegu, bere pronostikoen kaltetan. Zein da ondorioa? Zuen osagile-arengan konfiantza izan behar duzuela: hobetu ahal izateko lehen pausua da. •



Oso garrantzitsua da osagilearengan konfiantza izatea. GAUR8